

## Alexander Soljenitsyne idazleen elkartetik bota dute

*Zeruko Argia*, 354. zk., 1969-12-14: 4.

Zergatik bota dute orain Alexander Soljenitsyne Errusi'ko Idazleen Elkarte nagusitik?

*Ivan Denissovitch'en egun bat* izeneko liburua aspaldi idatzia du, ta ba da, gañera, urte pare bat idazle au ixilik dagoala. Ala ere bota dute. Bertako izparringiak ez dira asko kezkatu, noski, bañan ala ere erabaki onek Errusi'ko goi-mallan dauden artean zarata aundia atera du; beste errietako komunisten artean ere ez da neurri au ondo artua izango.

Zerk beartu ditu, orduan, Errusi'ko agintariak istillu-gorriko erabaki au artzera?

Mosku'n ez dio galdera oneri iñork zentzurik duan erantzun bat ematen. Axaletik esaten dutena da: Idazleen Elkarte orrek Riazan'en izan duan batzarrean artutako erabakia izan dala, ta ez elkarteko batzorde nagusiak berak erabakia. Bañan jakiñ-jakiña da neurri ori artu ta *Literatournaya Gazeta*'n berria agertu baño lenago (azaroaren 11'an, gabean) Komunista Alderdi'ko buru'biltzarrari bere iritxia eskatu zitzaioa.

Au ez da ba nola naiko neurri bat izandu, gorenko erabaki politikoa baizik.

Joan dan urteko apirillean, ideoloji gaietan gogorrago jokatu bear zalaren erabakia artu zan Alderdian; orain, idazleak ikaratu nai en ote dabiltze? Umekeria izango litzake, ala ere, Soljenitsyne orrela jo ta beste bañentzeko idazleak ikaratuko dirala pentsatzea. Errusi'n ere ez daude gauzak orain dala 16 urte bezela, ta Stalin ezkerro gertatu dana ez dago kolpetik ezeztatzerik. Ala ere, ba liteke idazleak an esaten duten bezela: "baserrietara" iges egin eta ixilik-edo garai batean eukitzea; beste egun obeen zai, noski; len ere bai baitakite orrelako asarreak ez dirala betiko izaten.

Bañan, nola nai. Soljenitsyne ez da ixillik geratu, ta ara Elkarteari bialdu dion dion eskutitzetik artutako itzak:

"Lotsagarria da nola zeok jarritako legeak oinperatu dizuten. Ni orko ez nintzala bota nazute; aurretik eskutitz bat edo telegrama bat bialdu gabe, ta orrera joateko bear nituan lau ordu oien mexedea ere ukatu dirazute. Orrekin erakusten nauzute zuen erabakia, azterpena bera baño aurreragokoa izan dela.

Nereak esateko bear nituan amar minutu oiei beldur al ziozuten?

"Orduan, emen dijoa eskutitz onetan nere orduko itzen ordaña.

"Jarri zazute erlojua orduan, oso atzeratua daukazute. Kendu itzazute ainbeste maite dituzuten kortina lodi oiek. Oraindik ez dezute sumatzen ere kanpoan egur-argi dala. Au ez da, gero, belarri gogorren denbora, auzirik ez zegoan denbora. Au ez da Pasternak ain errex bota zenduten garai ozti ta beldurtia.

"Ez al dezute lotsa arekin naikoa izan?

"Oraindik lotsa ori loditu nahi al dezute? Bañan zuek danak oraingo izenpekoak ziara borratu naiko dituzuten garaia ba dator. Itxuak gidatzen ari zeraten itxuak zerate; ez al zerate konturatzen zeok azaldutako bidearen aurka zoaztela? Ez al ziguten orain

dala Lerrogei ta amar urte ixilpekorik ez zala izango esan, eta erabaki bear zan guzia danon aurrean eta garbitasun osoan azaldua izango zela?

"Etsaiak entzungo dutela? bai.

"Zer egingo zenduteke zuek etsairik gabe? Etsai oiek kontura bapo ari zerate zuek nai dezuten erara, nai dezutenean eta nai dezutena egiten. Ez, ezin zerate iñola etsai gabe bizi. Gorrotoa, enda-arteko gorrotoari ezer enbiririk ez dion zuen gorroto beltz ori, zuen giro antzua biurtu zaizute. Bañan orrela galdu dezute gizarteak duan zure osotasunaren zentzua, zentzu bakarra, ta azkena, urreratzen ari da. Biar antartika-itsasoko izotzak urtuko ba lira, gizarte osoa itoko litzake; ta orduan, nori leporatuko ziezuteke zuen *klase-arteko burruka*?

"Eta ez det esan nai orduan bizirik geratuko diran bi oiñekoak nola erreta, azkeneko arnasetan, galduko diranak. Ba da oraindik denbora gu, lendabizi gizarte duelakoak gerala gogoratzeko; gizonak animalaren gañezko duan bentsaera ta izkuntza dituala. Ta gizonak, noski, libre izan bear dutela. Ta kateratzen ba dira, animalaren mallara jetxiko dirala, berriz.

"Erriaren osasunerako bear-bearreko dan lenengo neurria auxe da: zuzen, gerta bezela ta osorik gauzak esatea. Au nai ez duanak, berak aberriatzaz ajolarik ez zaio, bereko besterik pentsatzen ez du, ta ez du bere erria sendatu ere bai, bera barru-barruan sartu ta bertan usteldu dela utzi nai du.

Alexander Soljenitsyne, 1969'go azaroa

Alain Jacob (*Le Monde*'tik (17.11.69) U'tar M'ek laburtu ta euskeratua).